

Ebazpena: 153/2022

Espedientea: 9/2015

Vitoria-Gasteizen, 2022ko azaroaren 22an.

Euskal Autonomia Erkidegoarekiko Ekonomia Itunean aurreikusitako Arbitraje Batzordeak –Violeta Ruiz Almendral presidenteak eta Sofía Arana Landín eta Javier Muguruza Arrese batzordekideek osatuak– honako erabaki hau hartu du:

ERABAKIA

Bizkaiko Foru Aldundiak (aurrerantzean, BFA) ASGSLren zerga-egoitza 2009ko apirilaren 27tik aurrera aldatzearen inguruan Zerga Administrazioako Estatu Agentziarekiko (aurrerantzean, ZAEA) planteatutako gatazkari buruzkoa, zeina 9/2015 espediente-zenbakiarekin izapidetzen ari baita Arbitraje Batzorde honetan.

AURREKARIAK

1.- ASGSL 2009ko apirilaren 27an eratu zen (egoitza Madrilgo Paseo de la Castellana kaleko 153. zenbakian zuen), eta haren helburu soziala, besteak beste, gerentziako, informatikako, inbertsioko, bitartekaritzako eta komunikazioko enpresen aholkularitza egitea zen.

2.- 2009ko uztailaren 29an, ASGSLk bere egoitza soziala aldatu eta Bilboko C kalera eraman zuen, baina egoitza sozial horretan ez dago ASGSLren berririk.

3.- ASGSLren akten liburuan, 2009ko uztailaren 29tik gatazka planteatu zen egunera arte, 26 akta jaso dira, eta horietatik bost baino ez dagozkie Bilbon egindako bilerei; gainerakoak Madrilen egindakoei dagozkie. ASGSLren kontabilitatea kanpoko enpresa batek egiten du Madrildik eta Bartzelonatik, eta kontabilitate-dokumentuen artxiboa Madrilen eta Guadalajaran dago; eskriturak Madrilen egiten dituzte; Merkataritza Erregistroan inskribatu diren egintzen ziurtagiriak Madrilen egin dituzte; eta ASGSLren banku-kontuak Bilboko (bat) eta Madrilgo (bi) banku-sukurtsaletan ireki dituzte.

4.- ASGSL 2009ko ekainaren 29ra arte AMSLUk administratu zuen, BPCN andreak ordezkatura, zeinaren egoitza Madrilen zegoen. Data horretatik aurrera, Administrazioan hainbat pertsona arituko dira, eta gehienak lurralde erkidean bizi dira.

5.- 2013ko azaroaren 19an, BFAk ASGSLren egoitza Madrilera aldatzeko proposamena jakinarazi zion ZAEARI; horren ondorioak 2009ko apirilaren 27tik atzeraeraginez hasi ziren.

5.- Bi hilabete igaro ondoren, Ekonomia Itunarekin eta Ekonomia Itunaren Arbitraje Batzordearen Erregelamenduarekin bat etorrira, indarrean zeuden *ratione temporis* idazketetan, ZAEAK ez zion aipatutako proposamenari erantzun; beraz, BFAk 2015eko otsailaren 5ean aurkeztu zuen gatazka Ekonomia Itunaren Arbitraje Batzordean.

6- Gatazka prozedura arruntaren bidez izapidetu da, eta, beraz, bete egin da ZAEAK alegazioak egin eta froga eta dokumentazio egokiak aurkeztu eta proposatzeko izapidea. ZAEAK izapide hori betetzeko epea luzatzeko eskatu ondoren, azkenean, amore emanda, onartu egin da BFAk proposatutako egoitza-aldaketa.

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

1.- Arbitraje Batzordearen eskumena.

Arbitraje Batzordeak gatazka ebazteko eskumena du, Ekonomia Itunaren 66.Bat.c) artikuluan xedatutakoaren arabera, artikulu horrek «Zergadunen egoitza dela-eta sor litezkeen desadostasunak ebaztea» eginkizuna esleitzen baitio.

2.- Amore ematea.

Interesdunik eta, bereziki, zergapekoa bera aurkeztu ez denez, ZAEAk amore emateak, BFAk egindako egoitza-aldaketaren proposamena onartuz, bi administrazioen arteko gatazka bertan behera geratzea eragin du, eta Ekonomia Itunaren Arbitraje Batzordearen aurrean bideratzen den prozeduraren xedea gerora desagertzea eta, ondorioz, artxibatzea ekarri du.

Horiek horrela, Arbitraje Batzordeak honako hau

ERABAKITZEN DU

1.- Gatazka artxibatzea prozeduraren xedea gerora desagertu delako, ZAEAk amore eman baitu BFAk ASGSLren egoitza aldatzeko egindako proposamenean; 2009ko apirilaren 27tik aurrera izango ditu ondorioak.

2.- Erabaki hau Zerga Administrazioko Estatu Agentziari, Bizkaiko Foru Aldundiari eta ASGSLri jakinaraztea.